eremuak

EREMUAK KALIFORNIAN

Erlea Maneros Zabala in collaboration with Yucca Valley Material Lab

EGOBNALDIAREN DEIALDIRAKO OINARRIAK

Artists - Sponsorships

***eremuak*ek**, **Erlea Maneros Zabalarekin** eta **Yucca Valley Material Labekin** elkarlanean, **nazioarteko egonaldi-deialdi** bat kaleratu du Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren eta gutxienez azken hiru urteetan modu aktiboan eta profesionalean lanean aritu diren artistentzat.

Deialdiaren helburua da ikusmen-arteen testuinguruan lan egiten duten artistak eta/edo sortzaileak nazioartekotzen laguntzea.

Egonaldi honek bereizgarri du bi espazio eta testuinguru eskaintzen dituela berau egiteko: batetik, Erlea Maneros Zabala artistaren estudio-etxea, Mojave basamortuan dagoena, Kalifornian, eta, bestetik, Yucca Valley Material Lab. Azken horretan, hamabost eguneko egonaldia egingo dute artistek bertan bizi, lan egin eta YVMLk eskainitako tailer bat egiteko aukera izango dute eta inguruko artista-komunitatearekin harremanetan jarriko dira. Egonaldia **2026ko irailaren 29tik (asteartea) urriaren 30ra (ostirala)** egingo da.

ERLEA MANEROS ZABALAREN ESTUDIO-ETXEARI BURUZ

Egoitzak beste 15 eguneko bigarren zatia izango luke Erlea Maneros Zabalaren Etxe Estudioan. Bertan, artistak, Erlearekin batera, bere proiektua ikertzen eta garatzen jardungo du. Erlea Maneros Zabala (Lekeitio, 1977) gure testuinguruko artista bat da eta 25 urte baino gehiago daramatza Los Angelesen bizitzen, lan egiten eta erakusketak egiten. Gaur egun, Mojave basamortuan bizi da eta bertan egiten du lan. Erlea Maneros Zabalaren lanak irudiak eta horien efektuak sortzeko baldintzak aztertzen ditu, horiek sortzen diren testuinguruak eta horiek banatzen diren moduak aztertuta. Bere lanetan gai hauek jorratzen ditu, besteak beste: abstrakzioaren lengoaien akademizazioa, egiletzaren nozioa eta artisautzaren eta serieko fabrikazioaren artean ezartzen diren harremanak, ekoizpen-prozesuetan bitarteko mekanikoak erabiltzean oinarrituta. Erlea Maneros Zabalaren prestakuntza Glasgowko arte-eskolari eta Los Angeleseko –hiri horretan bizi izan zen– CalArts arte-eskolari lotuta dago. Erakunde hauetan egin ditu erakusketak, besteak beste: MNCARS, el Eco museo esperimentala (Mexiko Hiria), REDCAT (Los Angeles), Guggenheim museoa(Bilbo) eta Kadist Art Foundation (Paris).

Erleak 2010an egin eta diseinatu zuen estudio-etxe bat dauka. Etxearen zati bat gainerakotik bereiz daiteke pareta mugikor baten bidez, eta han egongo da artistaren logela –zuzenean sartu ahal izango da portxetik–. Gainera, estudio bat ere izango du, eta etxearen atzealdetik sartu ahal izango da hara. Artista egoiliarrak eta Erleak espazio hauek partekatuko dituzte: sukaldea, jantokia eta egongela. Horri esker, artistak bere independentzia izango du, eta lan egiteko toki lasaia. Gainera, denbora izango du Erlea Maneros Zabala artistarekin berarekin egoteko, hura arduratuko baita jarraipena egiteaz eta artisten arteko trukerako tokiak sortzeaz.

YUCCA VALLEY MATERIAL LAB RESIDENCERI BURUZ

Yucca Valley Material Lab (YVML) Yucca Mesa landa-komunitatean dagoen artisten egoitza, prestakuntza-

tailer, arte-galeria eta grabaketa-estudio bat da. Programak zeramikan, beira-galdaketan, urregintzan, musikan eta soinuan trebetasun berriak garatzera eta materialak murgiltze moduan esploratzearen bidez egiteko eta sortzeko modu berriak ikertzera animatzen ditu artista egoiliarrak eta programa publikoko parte-hartzaileak. YVMLko instalazioetan, 300 metro koadroko estudio partekatua, metal-galdategi bat, soldatzeko eta moldeak fabrikatzeko aire zabaleko instalazioak, gaua ematen duten apopiloentzako lau Camper pertsonalizatu, liburutegi bat (Sleeping Library), grabaketa-estudio bat eta arte-galeria bat (Lazy Eye galeria) ditu. **Lazy Eye galeria** 20 metro koadroko mikrogaleria bat da, jada erabiltzen ez den ur-dorre batean dago, eta sarbide publikoko da. Galeriak espazioaren izaera idiosinkrasikoa baliatzera eta beren ohiko jardunetik kanpo egon daitezkeen lanekin esperimentatzera animatzen ditu artistak (batik bat Inland Empire tokiko komunitatekoak eta Los Angeleseko metropoli-eremukoak). **The Sleeping Library** liburutegia atseden hartzeko nahiz ikasteko tokia da, eta atoi pertsonalizatu batean dago. Arteari buruzko ehunka liburu ditu, gehienak orain itxita dagoen Oregon College of Art & Craftek dohaintzan emanak.

BALDINTZAK

eremuakek **joan-etorriaren gastuak** ordainduko ditu, **900 euroko bidaia-poltsa bat eta 500 euroko materialetarako gastuak** zuzkituko ditu (ordainketa hori faktura bidez egingo da, eta jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda egon beharko da, eta BEZaren aitorpena egin) eta hautatutako pertsonaren **oinarrizko osasun-asegurua** eta **auto baten alokairua** (arrisku orotako aseguruarekin) ordainduko ditu.

Artistak, egonaldian, estudioa eta ostatua izango ditu, otordurik gabe. Hamabost egun Erlea Maneros Zabalaren estudioan (estudio pribatua) eta hamabost egun Yucca Valley Material Laben (beste artista batekin partekatuko du estudioa). Gainera, erabateko sarbidea izango du laborategira eta gainerako instalazioetara, bai eta laguntza teknikoa ere.

Yucca Valley Material Labek tailerra egiteko behar diren materialen gastuak ordainduko ditu.

Yucca Valley Material Labek, zentroaren programazio propioaren bidez, testuinguruko artisten komunitatearekin harremanetan jartzea da eskaintzen den beste baliabideetako bat.

YVMLko egonaldia **ate irekien jardunaldi** batekin amaituko da. Profesionalek, artezaleek, bizilagunek eta lagunek egindako lana ikusiko dute, galderak egingo dituzte eta artistekin batera egongo dira.

IZANGAIAK

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren (errolda-ziurtagiria aurkeztu behar da) eta gutxienez azken hiru urteetan modu aktiboan eta profesionalean lan egiten egon diren artistak izan daitezke izangaiak.

Diziplina hauek barne hartzen dira: ikusmen-arteen, soinu-artearen, performancearen edo praktika sozialaren barruan sartzen den edozein jardun.

Gaur egun Arte Ederretako lizentzia edo masterra egiten ari diren artisten eskaerarik ez da onartuko. Aldiz, doktoregoa egiten ari diren ikasleen edo gutxienez hiru urteko esperientzia profesionala duten eta gaur egun master batean matrikulatuta dauden artista profesionalen matrikulak onartuko dira.

Nazioarteko B1 gidabaimena izan beharko da, eta eskarmentua izan beharko da gidatzen; izan ere, eremuakek emandako ibilgailuan egingo dira joan-etorri guztiak.

Ingeles maila ona izan beharko da, gainera, egonaldian parte hartuko duten eragileekin komunikatzeko.

Horrez gain, eta aurreko esperientzietan oinarrituta, ikusi dugu ezinbestekoa dela egoitza horretarako hautatutako pertsona (aldi baterako bada ere, egoitza baliatzen ari den bitartean) kreditu-txartel baten titularra izatea (garrantzitsua: EEBBetan bermeak dituzten kreditu-txartel bakarrak Visa eta Mastercard dira).

ESKAERA EGITEKO PROZEDURA

https://eremuak.eus/eremuak-kalifornian/izena-emateko-orria/en bidez egin behar da eskaera Dokumentu hauek aurkeztu behar dira eskaeran:

Euskal Autonomia Erkidegoko errolda-ziurtagiria, .pdf, .jpg edo .jpeg formatuan. Dokumentuaren izenburua honelakoa izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, ***certificadoderesidenciaYVML*** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryresidencecertificateYVML.pdf**.

Curriculum vitaea (helbide elektroniko bat eta harremanetarako telefono-zenbaki bat adierazi behar dira ezinbestean), .pdf, .doc edo .docx formatuan. Dokumentuaren izenburua honelakoa izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, **CV** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryCV.pdf**

Biografia laburra modu narratiboan (100 hitz gehienez). Dokumentuaren izenburua honelakoa

izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, **BIO** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryBIO.pdf**

Motibazio-gutuna (100 hitz gehienez). Dokumentuaren izenburua honelakoa izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, **CM** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryCM.pdf**

Asmoen dosierra. Dokumentuaren izenburua honelakoa izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, **DI** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryDI.pdf**

Egindako obraren dosierra. Dokumentuaren izenburua honelakoa izango da: eskatzailearen lehen **abizena**, gero, bere **izena**, eta, jarraian, **DOSSIER** hitza (punturik, komarik edo zuriunerik gabe). Adibidea: **jonesmaryDOSSIER.pdf**

EGUTEGIA

2026ko maiatzaren 11n irekiko da Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren artistentzako deialdia.

Azken eguna: **2026ko uztailaren 5era arte** onartuko dira egonaldi-programarako eskaerak.
Aukeraketaren emaitza uztailaren 10aren eta 19aren artean argitaratuko da, eremuaken webgunean: https://eremuak.eus

Egonaldia **2026ko irailaren 29tik urriaren 30ra** bitartean egingo da.

Egonaldiak hilabete iraungo du:

Lehen egunak egokitzeko izango dira, Erlea Maneros Zabala artistaren eskutik.
Bigarren eta hirugarren asteak YVMLn egingo dira.
Laugarren eta bosgarren asteak Erlea Maneros Zabalaren estudio-etxean egingo dira.

BETE ESKAERA

https://eremuak.eus/eremuak-kalifornian/izena-emateko-orria/